

**ALDERDI EDERREKO PENTSIODUNEN ELKARTEAK AURKEZTUTAKO  
ESKAERAREN INGURUKO KONTROL MOZIOA**

Olaia Duarte Lopezek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udaltzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udaltzaren azter dadin. Mozioa 2019ko uztailaren 15ean Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

**JUSTIFIKAZIOA**

Apirilaren 29an Alderdi Ederreko Pentsiodunen Batzordeak idatzi bat erregistratu zuen Eneko Goia alkateari eta Udaltzaren osatzen dugun talde politikoko guztiei helarazteko. Pentsiodunek ez dute orain arte Udal Gobernuaren aldetik erantzunik jaso.

Idatzi horretan, 2018ko iraileko eta abenduko udaltzarretan onartutako kontrol mozioetan jasotako neurriak betetzea eskatzen dute pentsiodunek. Hau da:

- Diru-sarrera urriak dituzten pentsiodunentzako berariazko komunikazio kanpaina bat egitea, zer laguntza ekonomiko dagozkien jakin dezaten.
- Donostiako erretiratuen-egoitzetan saio bat egitea udal gizarte zerbitzuetan eskatu daitezkeen laguntza ekonomikoen inguruan.
- Pobrezia egoeran aurki daitezkeen emakume pentsiodunei buruzko ikerlan bat egitea, hiriko diagnostiko bat izan ahal izateko.

Hain zuzen ere, Lanbidek apirilean bertan argitaratutako azkeneko datuek pentsiodunek astelehenero salatzen duten errealitate bat mahai gainean jartzen dute: diru sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko eskubidea dutenen artean emakumezkoak dira gehiengoa (Gipuzkoaren kasuan %57,7) eta, pentsiodunen kasuan, 13.721 onuradunetatik %64,18 emakumezkoak dira. Horien artean, emakume pentsiodun alargunak dira egoera larrienean daudenak.

Udal diru laguntzei dagokienez ere, errealitate hori bera errepikatzen ari da: urtetik urtera gero eta emakume pentsiodun gehiagok behar dituzte diru laguntzak oinarrizko gastuei aurrera egin ahal izateko. Datu orokorrak ikusita, 2015etik 2018ra GLLen eskaerak behera egin dute %6,28an. Baina, pertsona pentsiodunek egindako eskaerak ikusita, diru laguntzak behar dituzten pentsiodun donostiarrak gero eta gehiago dira urtetik urtera. Batez ere, 65 urtetik gorako emakumezkoak dira diru laguntza hauek beharrezkoak dituztenak, oinarrizko gastuei aurre egin ahal izateko, eta urtetik urtera haien kopurua gora doa.

Hona hemen azken urteetan ematen ari den egoera:

Urtea	Eskaerak (familiak)	65 urtetik gorako onuradun emakumezkoak	65 urtetik gorako onuradun gizonezkoak
2013	2.322	525	124
2014	2.613	558	143

2015	2.709	608	151
2016	2.695	662	171
2017	2.539	691	191
2018	2.534	709	196

Datuetan argi gelditzen da diru laguntzak behar dituzten pentsiodunen kopurua gora doala eta onuradunen %80 emakumezkoak direla.

Aipatutako datuak ikusita eta pentsiodunek egindako eskaera kontuan hartuta, uzaileko batzordeetan alkatea interpelatu dugu. Kasu honetan, Gizarte-ekintzako delegatuak eman digu erantzuna eta aitortu du 2018an onartutako bi kontrol mozioetan jasotako neurriak ez direla martxan jarri eta Udal Gobernuaren intentzioa dela irailetik aurrera pentsiodunen eskaerak bideratzen hasia.

Delegatuaren hitzetan, irailean erretiratuen-egoitzetako saio informatiboak antolatzen hasiko dira, udal gizarte zerbitzuetan eska daitezkeen laguntza ekonomikoen informazioa emateko. Baina, pobrezia egoeran aurki daitezkeen emakume pentsiodunei buruzko ikerlana dela-eta, ez dago aurreikusita data edo plangintzarik eta Berdintasun Sailarekin antolatu beharreko prozesua izango dela aipatu du.

Ikusita urtebete daramagula diagnostiko honen zain eta denbora egon dela Berdintasun Sailarekin plangintza edo kronograma bat, gutxienez, egiteko, gaia arduraz landu behar dela uste dugu. Gainera, idatziz aurkeztutako eskaerari erantzun bat eman behar zaiola uste dugu.

Azaldutako egoera kontuan hartuta, behean sinatzen duen zinegotziak honako MOZIO hau aurkeztu du:

### **KONTROL MOZIOA:**

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari apirilaren 29an Alderdi Ederreko Pentsiodunen izenean aurkeztutako idatzian jasotzen diren eskaerak bete ditzala (hau da, 2018ko irailaren 20an eta abenduaren 14an onartutako kontrol-mozioetan jasotako neurriak praktikan jar ditzala).

2.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari hirian pobrezia egoeran aurki daitezkeen emakume pentsiodunei buruzko ikerlana egiteko plangintza bat aurkez dezala sei hilabeteko epean.

Donostian, 2019ko uztailaren 18an

Olaia Duarte López  
EH Bildu udal taldeko zinegotzia